

KONTROL MOZIOA

Altzako Santa Barbara auzoko azpiestazio elektrikoa kentzeko aukera dela eta

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko otsailaren 14an Lurralde Garapeneko batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2021eko urtarrilaren 28an, Donostiako Udalbatzak onartu zuen EH Bilduren mozio bat eskatzen diona Eusko Jaurlaritzako Industria sailari memoria txosten bat helaraz diezaiola, erakusten dituen Altzako Santa Barbara azpiestazio elektrikoaren inguru hurbilean egun dauden eremu magnetikoak eta, oro har, auzotarren osasunean eragin ditzakeen arrisku egoerak. Memoria horrekin batera, eskatzen dio helarazteko txosten bat instalazio elektrikoa egungo kokapenetik aldentzeko aukerak, eta horretarako beharko diren urratsak eta baliabide ekonomikoak zehaztuta.

Ekainean, EH Bilduk batzordean galdetu zion Udal Gobernuari jaso ote zuen Eusko Jaurlaritzako Industria sailaren erantzunik, eta ezezkotan, erantzuna eskatua ote zion. Udal Gobernuaren izenean erantzuna eman zuen zinegotziak adierazi zuen otsailaren 1ean bidali zela eskaria, eta hortaz, bost hilabete igarota "goizegi" zela erantzun bat espero izateko. Geroztik, ordea, ez dugu beste berririk izan iazko urtarrilean Udalbatzak onartutako mozioaren jarraipenaren inguruan.

Batzordean EH Bilduk Udal Gobernuari galdetu zion jaso ote duen Eusko Jaurlaritzaren erantzunik, eta erantzunik jaso ez badu, eskatu ote dion erantzunik Industria sailari. Gainera, eta berriki jakin dugunez Udal Gobernuak bertan behera utzi duela azpiestazioaren inguruan eraikitzeko zen aparkalekuaren egitasmoa, eta azpiestazioaren eremu bera horretarako egokia izan daitekeela ohartuta, iritzia eskatu genion horren inguruan. Zinegotzi ordezkariak erantzun zuen ez dutela Industria sailaren erantzunik jaso eta eskatu ere, ez diotela eskatu. EH Bilduren iritziz, ordea, aski denbora igaro da Eusko Jaurlaritzari erantzun bat eskatzeko.

Gainera, zinegotziak adierazi zuen ez zuela aski informaziorik azpiestazioaren eremua aparkatzeko egokia izan daitekeen jakiteko, aztertu egin beharko zela lur horien egoera. Erantzun horrek bete-betean talka egiten du Altzan egon daitezkeen lur kutsatuen mapa egiteko EH Bilduren proposamenari Udal Gobernuak emandako ezezkoarekin. Jakinik Felix Iranzo kaleko aparkalekuaren egitasmoa bertan behera utzi duela Udal Gobernuak, eta Tomasenekoa desegin zuenetik Santa Barbarako eta Arriaga Berriko auzotarrek aparkatzeko arazoak dituztela, EH Bilduk uste du beharrezkoa dela aukera hori ere aztertzea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

